

FUNTSEZKO JARDUERAK

Egitasmo honekin aurrera jarraitzeko hainbat jarduera egin beharko ditugu, kasu honetan APPa sortzeko eta honi etekina ateratzeko jarraitu beharreko pausuak dira. Hauetako bakoitzak bere funtzio edo helburu propioa izateaz gain, ekintzaile konkretu bat arduratuko da hauetako bakoitzaz, baliabide intelektualetan oinarrituta. Taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du; bakoitzak trebetasun ezberdinak dituen ez ondo etorriko zaigu proiektua aurrera eramaterakoan. Bakoitzak bere eginkizuna bete beharko du eta talde bat garenaz norbaitek laguntza behar badu elkar lagunduko gara.



Luciak eta Telmok badute beharrezko jakintza teknologiaren alorrean, beraz aplikazioa sortu ondoren egin behar diren funtsezko jardueretaz arduratuko dira. APParen programazioa aldiz, informatikari baten eskura utziko dugu gure jarduera garrantzitsuena delako eta ondo gauzatzea bermatu nahi dugulako.

Saioa eta Asier harremanetan zentratuko dira. Asier, bezeroak gurekin hainbat kanalen bidez komunikatuko diren kanalez arduratuko da harreman horiek sustatu eta mantentzeko: galdetegiak bidaliko ditu eta aldaketaren bat ematen bada jakinarazpenak bidaliko ditu arazorik ez egoteko. Saioak supermerkatuekin kontaktatuko du haien prezioak eguneratuta izan ditzagun.

Hasieran zaila izango da etekin asko ateratzea beraz publizitatea egitea derrigorrezkoa izango dugu proiektua aurrera eramateko, horrela, gure produktua ezagutu ahalko dute. Horretarako sare sozialetan kontu bat irekiko dugu, beraz etengabe konektatuta ibili beharko gara, Lucia arduratuko da horretaz.